

AYUNTAMIENTO DE ZUIA

MURGIA (ALAVA)




ZUIAKO UDALA

MURGIA (ARABA)

ZUIAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

2023-2025 Aldia



**HITZAURREA**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2025 Legearen 3. artikulua ezartzen du edozein administrazio publikok bere jardunean errespetatu behar duen printzipioetako bat dela helburuen arabeko plangintza eta zuzendaritza egitea eta politika publikoen emaitzen kudeaketa eta ebaluazioa kontrolatzea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek, dirulaguntzak emateko eraginkortasuna hobetze aldera, dirulaguntzen plan estrategiko bat egiteko beharra ezartzen du. Plan estrategiko horrek lortu beharreko helburuak eta lortu nahi diren ondorioak aurreikusitako kostuekin eta horien finantzaketarekin erlazionatzea ahalbidetuko du, dirulaguntzen bidez bete beharreko premia publikoak eskuragarri dauden baliabideekin egokitzeko, eta horiek guztiak dirulaguntza eman aurretik.

Aipatutako 38/2003 Legearen zioen azalpenean ezartzen denez, "Sektore publikoaren finantza-jardueraren zati handi bat dirulaguntzen bidez bideratzen da, pertsona eta erakunde publiko edo pribatuen eskaera sozial eta ekonomikoei finantza-laguntzako neurrien bidez erantzuteko".

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8. artikularen 1. paragrafoak honako hau ezartzen du: "Administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duen edozein erakundek, aldeztu aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte berau aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa-iturriak ere, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzen badira". Hau da, oinarriko izaerarekin, administrazio publiko guztientzat ezarrita dago dirulaguntzak ezarri aurretik plan estrategiko bat egiteko eta onartzeko betebeharra.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduaren 10. artikulutik 15. artikulura bitartekoek garatu dute erregulazio hori, eta honako hau adierazten dute: "Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 8. artikuluan aipatzen diren dirulaguntzen plan estrategikoak politika publikoak planifikatzeko tresna dira, eta haien helburua da onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduera bat sustatzea edo helburu publiko bat bultzatzea".

Dirulaguntzen plan estrategiko bat izateko eskakizuna legeak 2003an sartutako berrikuntza bat da, administrazio publiko guztiak behartzen dituen, aginduaren oinarriko izaera dela eta, eta gastu publikoak efizientzia- eta ekonomia-printzipioei erantzuteko eskakizun konstituzionalaren barruan sartzen dena (31.2 artikulua); beraz, dirulaguntza oro helburu publiko bat lortzeko eman behar da.

Plan Estrategikoak lortu beharreko helburuak eta lortu nahi diren ondorioak aurreikusitako kostuekin eta horien finantzaketarekin erlazionatzeko aukera eman behar du, dirulaguntzen bidez bete beharreko premia publikoak eskuragarri dauden baliabideekin egokitzeko, eta hori guztia dirulaguntza eman aurretik.

Gainera, helburuen kontrolaren eta ebaluazioaren bidezko jarraipen-sistema bat planteatzen du Legeak. Sistema horrek aukera eman behar du lortu nahi diren helburuen lorpen-maila lortzen ez duten edo inbertitutako baliabideen mailari egokitzen zaizkion dirulaguntzen ildoak aldatzeko edo eraginkorragoak edo efizienteagoak diren beste batzuekin ordeztzeko, edo, hala badagokio, ezabatzeko.



Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 8. artikulua hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako DLOren Erregelamenduaren 10. artikulutik 15. artikulura bitartean garatu da, eta bertan ezarri dira zein izan behar diren planen printzipio gidariak, esparrua eta edukia, bai eta planak onartzeko eskumena eta planaren jarraipena egiteko eskumena ere.

11. artikulua arabera, zehazki, ekitaldi bakoitzerako politika ekonomikoaren eta aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzeko ezartzen diren murrizketetara egokitu beharko dira plakak. Hiru urteko indarraldirako aurreikuspenak izango dituzte, salbu eta, eragindako sektorearen izaera berezia dela-eta, beste iraupen-plan bat ezartzea komeni bada.

Auzitegi Gorenak emandako jurisprudentziaren arabera (zehazki, 2013ko apirilaren 16ko epaia, 2012ko ekainaren 26ko eta abenduaren 4ko epaiak), honako hau nabarmendu behar da:

- Plan estrategikoa edozein dirulaguntza ezarri baino lehenagokoa da.
- Manua aginduzkoa eta kategorikoa da. Plana alde aurretik egoteko eskakizuna ez da tangenziala, ezta sistematikoa ere; aitzitik, dirulaguntza arautu aurreko funtsezko baldintza da, eta, beraz, kanpoko formalizazio edo instrumentalizazio bat eskatzen du, formaltasun jakin bat eskatzen ez badu ere, identifikatzeko moduko definizio espezifikoa bat behar duena. Baieztapen horren alde, aipatutako 8. artikulua hiru garren atala aipatzen da, dirulaguntzen kudeaketa gardentasun-, efizientzia- eta eraginkortasun-printzipioei jarraikiz egin behar dela ezartzen duenean.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua honela interpretatu behar da: dirulaguntzen plan estrategikoa bat edozein dirulaguntza ezarri aurretik onartzea dirulaguntzen prozeduraren funtsezko baldintza da, eta, beraz, laguntza publikoak deitzen dituen administrazio publikoak edo erakunde publikoak betebehari hori betetzen ez badu, dirulaguntza deitzeko agindua baliogabetu egingo da.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (DPE) onartzeko organo eskuduna Udaleko Osoko Bilkura da, dirulaguntzen jardueraren plangintza estrategikorako edo sustapen eta kudeaketa ekonomikorako tresna delako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.e) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Horren guztiaren arabera, **Zuiako Udalaren 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa** aurkeztu da.

Plan honen bidez, Zuiako Udalak **baliabide publikoen erabilera eraginkorragoa** ezarri nahi du, eta, bereziki, politika publikoek eustera bideratutakoak. Politika horietan, **bizikidetzabaliok garatzea, bizi-kalitatea hobetzea eta herritarren arteko desberdintasun-egoera jakin batzuk zuzentzea** ezartzen da, haien existentziaren giltzarri gisa.

Ikuspegi ekonomikotik, gastu publikoaren modalitate garrantzitsua dira dirulaguntzak, eta, beraz, aurrekontu-politikaren, finantza-iraunkortasunaren eta hazkunde ekonomikoaren gidalerroetara egokitu behar dira.

Administrazioaren ikuspegitik, **dirulaguntzak** interes orokorrekotzat jotzen diren **gizarte-ekimen jakin batzuk sustatzeko teknika bat dira, bai eta herritarren parte-hartzea eta**



administrazio publikoaren eta herritarren arteko lankidetzaz errazteko modu bat ere, interes publikoko zerbitzuen eta jardueren kudeaketan.

Gogoratu behar da plana dirulaguntzak emateko edozein proposamen egin baino lehen egin beharko dela, eta planteatzen diren proposamenak Udal Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jaso beharko direla.

Plana arau-mailarik gabeko kudeaketa-tresna programatikoa denez, horrek esan nahi du ez duela eragin zuzenik dirulaguntzen onuradun izan daitezkeen eremuan, eta, beraz, ez duela ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen haientzat. Plana eraginkorra izan dadin, dirulaguntzen lerroak abian jarri beharko dira, beste baldintza batzuen artean, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta. Beraz, dagozkion diru-izendapenak sartu beharko dira udal-aurrekontuetan, eta dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak edo dagozkion dokumentua onartu beharko da.

Hala ere, azpimarratu behar da barne-ondorioak bi zentzutan lotzen zaizkiola udal-korporazioari. Lehenik, **Planean aurreikusi gabeko ekintza-ildoetarako dirulaguntzak ematea debekatuz.** Bigarrenik, **aurreikuspenekiko gerta daitezkeen desbideratzeak arrazoitzeko berariazko betebeharra** ezarri, jarraipen-txostenetatik eratorritzen diren aldaketak baztertu gabe, Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamenduaren 15. artikulua arabera.

Oro har, dirulaguntza horiek **jasotzen dituzten** pertsonak **irabazi-asmorik gabeko erakundeetan antolatutako taldeak** izan ohi dira, hala nola tokiko elkarte edo erakunde txikiak (kontzejak), askotariko jarduera-eremuak dituztenak: gizarte-ekintza, kultura, hezkuntza, ingurumena, kirola, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena, garapenerako lankidetzaz, eta abar.

Askotariko dirulaguntzak ematen dira prozedura konplexuen bidez, eta, beraz, jarraipen eta kontrol eraginkorrak egin behar zaizkie.

Dirulaguntzen bidez bete beharreko behar publikoak baliabide erabilgarrien aurreikuspenekin egokitze aldera, Zuiako Udala azken urteotan lanean aritu da dirulaguntzak ebaluatzeko, aztertzeko eta esleitzeko prozedurak ezartzearen, udal-talde guztien artean adostutako irizpideetan oinarrituta, deialdi aurreratuaren bidez izapidetutako dirulaguntzetarako.

Horrela, objektibotasun- eta gardentasun-printzipioei jarraituz, eta kontuan hartuta dirulaguntzak gastu publikoaren modalitate nabarmena direla eta hartzaileak oso heterogeneoak direla, beharrezkoa da haien prozedurazko eta funtsezko alderdi nagusiak arautzea.

Hala, 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa beharrezko ardatz gisa eratzen da dirulaguntzak emateko, 2023-2025 aldirako Zuiako Udalaren dirulaguntzen jardueraren arloko printzipioak eta estrategia laburbiltze aldera, edozein dela ere haien araubidea edo izapidetzeko eta emateko prozedura. Honako hauek bereizten dira horien artean:

- Norgehiagoka-araubidean emandako dirulaguntzak.
- Lehiarik gabeko norgehiagoka-araubidean emandako dirulaguntzak.



- Zuzeneko dirulaguntzak (izendunak).

Plan honen bidez, baliabide publikoak modu eraginkorragoan erabiltzea lortu nahi da; zehazki, politika publikoak gauzatzera bideratutakoak, non jarduketa publiko eta pribatu batzuk batera gertatzen diren, edo herritar batzuek besteekiko dituzten desberdintasun-egoera jakin batzuk zuzentzera bideratutakoak, herritarrentzat bizi-kalitate handiagoa lortzeko asmoz.

Udal-eremu hertsian, Zuiako Udalak **Dirulaguntzak eta Laguntzak Arautzen dituen Ordenantza Orokorra** onartu du.

Eraginkortasuna hobetzeko, legerian aurreikusten da dirulaguntzen plan estrategiko bat egitea, urte anitzekoa, korporazioak irabazi-asmorik gabeko hainbat erakunderekin egin ditzakeen lankidetzak-hitzarmenak edo dirulaguntzak sortu aurretik.

Honako hauek dira Plan Estrategikoaren printzipio gidariak:

- Publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Erakunde emaileak ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna.
- Baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko efizientzia.

Arreta berezia jarri behar zaio emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari, eta, beraz, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bigarrenez aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2002 Legeari**.

Zioen azalpenean jada adierazten da neurriak ezartzen direla EAEko botere publiko guztietan berdintasun-politikan aurrera egiteko funtsezko elementuak ezartzea errazteko, hala nola, besteak beste, dirulaguntza publikoetan berdintasuna sustatzeko neurriak.

Berdintasunerako Legearen 21 bis artikulua lehen paragrafoaren arabera, euskal herri-aginteez, oro har, **genero-ikuspegia txertatu behar dute dirulaguntza publikoetan**, eta emakumeen eta gizonen arteko **berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeke neurriak sartu behar dituzte oinarri edo arau erregulatzailetan, balorazio-irizpideen artean** eta pertsona fisiko edo juridiko onuradunen **betebeharren artean, salbu eta txosten arrazoitu baten bidez justifikatzen bada dirulaguntzak eragina duela generoagatiko desberdintasunak ez dagoen eremu batean, edo, desberdintasunak egonda ere, dirulaguntzak ez duela eraginik emakumeen eta gizonen egoeran**. Txostena dagokion erakundearen emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumena duen organo edo organismoari helaraziko zaio, haren iritzia jasotzeko.

1. Agindu horrek bigarren paragrafoan dioenez, euskal herri-aginteez **ezin izango dute inolako laguntza edo dirulaguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria edo 3.1 artikuluan jasotako bereizkeria anizkoitzaren ziozko bereizkeria eragiten duten jardueretarako**, ez eta sexuaren ziozko **bereizkeria egiteagatik** edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko **araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei** ere, dagokion zehapenean



ezarritako epean. **Halaber, ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso** Estatuko araudiaren arabera **berdintasun-plan bat indarrean eduki behar duten** baina halakorik ez duten **enpresek**, ez eta 50 langiletik gorako enpresek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpenari aurrea hartzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri dituztela, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ezarritakoaren arabera.

2. Hirugarren paragrafoak xedatzen du euskal botere publikoek, dirulaguntza publikoak arautzen dituzten oinarri edo arauetan, besteak beste:

a) Lehiaketan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoek bete beharreko **baldintzen** artean adieraziko dute, baldin eta emakumeen eta gizonen berdintasuna alderdi garrantzitsua bada dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ibilbide bat egin dutela egiaztatzea; edo beren estatutueta helburuen, helburu sozialaren edo sorrerako helburuaren artean berdintasuna sustatzea dagoela; edo diruz lagundutako proiektua edo jarduera gauzatuko duten pertsonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoak dutela.

b) **Balorazio-irizpideen baremoaren guttizkoaren % 5ekin baloratuko dituzte, gutxienez**, parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoen emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko **ekintzak eta politikak** eta/edo dirulaguntzara aurkezten den proiektuan genero-ikuspegia txertatzearekin lotutako beste alderdi batzuk. Hori guztia, salbu eta objektiboki justifikatzen bada ehuneko hori neurritz kanpoko delat dirulaguntzak emakumeen eta gizonen egoeran duen eraginari dagokionez.

c) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko **betebeharrak** ezarriko dituzte, **hizkera eta irudi mota guztietan erabilera ez-sexista egiteaz gain**, bai eta emakumeen eta gizonen **berdintasunerako klausulak ez betetzeak dakartzan ondorioak** ere.

d) Emakumeen eta gizonen egoeran zer eragin izan duten jakiteko, **erakunde onuradunei eskatuko diete** dirulaguntzak ematean ezarritako betebeharrak bete dituztela **justifikatzen duten memorietan sexuaren arabera banakatutako informazioa emateko honako hauei buruz**: emandako zerbitzuaren **azken onuradunak** edo erabiltzaileak, **erakundearen titularrak eta langileak**, eta, hala badagokio, dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatu den erakundeko langileak.

Artikulu horren laugarren paragrafoak, gainera, **ezartzen du dirulaguntza publikoen onuradun diren pertsona juridiko guztiek egiaztatu beharko dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak benetan betetzen dituztela, hori egiaztatzeko ezarritako dokumentazioa aurkeztu eta justifikatu beharko dutela, eta** irizpide sozial horiek **egiaztatzeko jarduketak egin beharko dituztela.**

3. Azkenik, aipatutako artikulua bosgarren paragrafoan xedatzen duenez, Estatuko araudia betetzeko, euskal administrazio publikoek, **dirulaguntzen plan estrategikoak egitean, objektiboki eta arrazoituta aztertu eta justifikatu beharko dute dirulaguntzen xede diren eremuetan emakumeen eta gizonen artean desberdintasunik dagoen.** Horretarako, **iritzia eskatu ahal izango diote kasuan kasuko administrazioan**



emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskumena duen organo edo organismoari.

4. Bestalde, Berdintasunerako Legearen 21 ter artikulua, kontratazio publikoari eta dirulaguntzei buruzko xedapen komunak ezartzean, adierazten du **dirulaguntzak** eta kontratuak **sustatzen dituzten organoek adierazleak ezarri beharko dituztela** aurreko bi artikuluetan aipatutako **neurrien betetze-maila eta eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko**. Euskal botere publikoek, bakoitzak bere jardun-eremuan, **arauak edo jarraibideak onartu ahal izango dituzte, aurreko bi artikuluetan aurreikusitakoa benetan betetzeko jarraibideak emateko**.

5. Laguntza edo dirulaguntzen onuradun diren **erakunde pribatuei** dagokienez, udalarekin duten harremanaren **denboran eta gaian Berdintasunerako Legearen 3. artikuluko eta 16. eta 18.4 artikuluetako printzipio orokorrak bete beharko dituzte**. Hala, **dirulaguntzetan** [funts publikoen transferentzia bat formalizatzean erakunde pribatu horietara] **berdintasunerako klausulak** txertatu behar dira, kasu bakoitzean aipatutako artikulua **nola beteko diren** zehazteko. **Hori betetzen ez bada, zigorrak ezarri ahal izango dira, kasuan kasuko kontratuak edo hitzarmenak suntsiarazi ahal izango dira, edo jasotako zenbatekoak gutxitu edo itzuli egin ahal izango dira**. Sektore pribatuari dagokionez, lege honen 2.4 eta 2.5 artikuluetan xedatutakoa alde batera utzi gabe, euskal sektore publikotik kontratuak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten enpresa eta erakundeek bete egin beharko dute emakumeen eta gizonen ordainsari-gardentasunaren eta -berdintasunaren printzipioa. Horretarako, euskal botere publikoek dagozkien berdintasun-klausulak sartuko dituzte, eta soldatak edo ordainsariak kontrolatzeko sistema egokiak ezarriko dituzte. Ordainsari-diskriminazioen zantzuak atzematen badira, epe bat emango zaie erakundeei, horiek justifika edo zuzen ditzaten, eta, hala egiten ez badute, dagozkion kontratu- edo dirulaguntza-prozesuaren esparruan zehazten den zigorra edo ondorioa jasoko dute. Horren barruan sar liteke dirulaguntza galtzea edo kontratua suntsiaraztea eta jasotako zenbatekoak itzultzea (hala ezartzen du Berdintasunerako Legearen 40.d artikulua).

6. Gainera, Berdintasunerako Legearen 24.1 artikulua arabera, sustatu behar da emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundeen zuzendaritza-organismoetan. Horretarako, **emakumeen eta gizonen ordezkartza txikia den zuzendaritza-organismoetan emakumeen presentzia areagotzeko neurriak hartzearen arabera dagozkien dirulaguntzak egokitu ahal izango dira, besteak beste**.

Horregatik, Udal honek Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du eta, hona hemen planaren artikulua.

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA.

Udal honek 2023-2025 aldian ezarriko dituen dirulaguntzak Plan honetan aurreikusitakora egokituko dira.

2. ARTIKULUA.

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko, dagozkion diru-izendapenak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal-aurrekontuetan, edo, bestela, dirulaguntza horiek emateko oinarri arautzaileak onartu beharko dira, edo, bestela, aurrekontuan



dirulaguntza izendun gisa aurreikusi eta dirulaguntza horiek emateko ebazpena eman beharko da.

3. ARTIKULUA.

Dirulaguntzak ezartzeko, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira; beraz, onartzen diren aurrekontu-esleipenak eta dirulaguntza horiek emateko oinarri arautzaileak helburu horietara egokituko dira unean-unean.

4. ARTIKULUA.

Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau onartzeak ez du esan nahi onuradun izan daitezkeenek inolako eskubiderik izango dutenik, eta ezin izango dute inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu plana bere horretan gauzatzen ez bada.

5. ARTIKULUA.

Dirulaguntzen arloko erregulazio juridikoak, bai eta administrazio publikoei aplikatu beharreko araubide orokorrak ere, jarduteko printzipio orokor batzuk ezartzen ditu. Printzipio horiek plan estrategiko honen funtsezko elementuak dira, eta udal-kudeaketa zuzendu behar dute dirulaguntzen arloan:

- **Publizitatea eta lehia:** aldez aurreko deialdi bat eskatzen du, lehia eta berdintasuna bermatuko duena funts publikoen banaketan, hargatik eragotzi gabe zuzeneko emakida, zeinak indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak bete beharko baititu.

- **Gardentasuna:** baliabide publikoak esleitzeko prozesuan, bai emateko prozesuan, bai emaitzak argitaratzean, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (gardentasunari, informazio publikoak eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak) ezarritako baldintzak betez.

- **Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna:** Dirulaguntzak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioetara eta gastu-araura egokituko dira, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako baldintzetan.

- **Objektibotasuna:** funts publikoak esleitzeko prozesuan, irizpideak eta horien balorazioa ezarritik.

- **Berdintasuna eta diskriminaziorik eza** herritarren artean, sektoreen eta kolektiboen artean.

- Helburuak betetzeko **eraginkortasuna**, emandako dirulaguntzen jarraipena eta kontrola egiteko prozedura bat ezarritik.

- **Efizientzia** baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean, dirulaguntzak baloratuta eta proiektu eraginkorrenei esleituta.

- **Genero-ikuspegia** txertatzea plan estrategikoaren ildo bakoitzaren helburu estrategiko eta espezifikoen, horietan guztietan desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezar dadin. Genero-ikuspegiaren integrazioa da emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezko ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea.



Printzipio horiek guztiak Zuiako Udalaren dirulaguntzen lerro eta programei aplika dakizkieke.

II. KAPITULUA. ONURADUNAK ETA ZEIN ARLOTAN EZARRIKO DIREN DIRULAGUNTZAK

6. ARTIKULUA.

Udalak dirulaguntzak emango dizkie udalerriko pertsona, elkarte, erakunde pribatu edo toki-erakunde txikiei, deialdi publiko bidez edo izendun bidez, onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak egitea sustatzeko edo toki-eskumenari esleitutako helburu publikoak lortzea sustatzeko.

Dirulaguntzen lerro bakoitzak honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

1. Programa ekonomikoa.
2. Dirulaguntzaren lerroa.
3. 2023ko kostua.
4. Modalitatea.
5. Helburuak.

7. ARTIKULUA.

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak eta laguntzak emateko (hala badagokio, aldatu egin daitezke), eranskin bat du planak, diruz lagundu beharreko jarduera xehatzen duena, aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntzak ordenatzen dituzten ildo estrategikoen edo programen arabera, honako irizpide hauen arabera:

1. Arloa/programa: dirulaguntzaren gastu-arloa islatzen du.
2. Deskribapena: diruz lagundutako jarduera zehatza jasotzen du (zehaztuta ez daudenak norgehiagoka-prozedurei dagozkiela ulertzen da).
3. Kudeaketa-modalitatea: dirulaguntza emateko aplikatu beharreko prozedura, horretarako ezarritako printzipio orokorren eta baldintzen arabera.
4. Zenbatekoa: Dirulaguntza bakoitzerako aurreikusitako esleipena.
5. Aurrekontu-aplikazioa: dirulaguntza aurreikusten den gastu-aurrekontuaren aplikazioa.

Eranskin hori berrikusi egingo da, udal-aurrekontu orokorreko dirulaguntza arruntak eta kapital-dirulaguntzak zehaztuta.

III. KAPITULUA. HELBURU OROKORRAK ETA ESTRATEGIKOAK

8. ARTIKULUA.

Oro har, diruz lagundutako ekintzek aurreko ekitaldietan jarraituko dutela bermatu nahi da. Ezarritako laguntza-lerroak lortu nahi diren helburuak lortzen ari direla egiaztatu ondoren, partidak egokitu egin dira, helburu horiek lortzearen arabera.

Lehentasunezko helburuen artean dago onura publikoko edo interes sozialeko era guztietako jarduerak sustatzea, edo xede publiko bat sustatzea, betiere irabazi-asmorik gabe, errendimendu ekonomiko txikiko jarduerak garatzen eta sustatzen lagunduz, eta elkarte-sareak eta herritarrek udal-jardueran parte hartzeko sareak sortzea bultzatuz.

Zuiako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategiko honen (2023-2025) helburu orokorrak honako hauek dira:



1.- Zuiako udalerriko erakundeek eta pertsonak udal- eta herritar-kudeaketako eremuetan parte har dezaten bultzatzea, sustatzea eta indartzea, hala nola gizarte-eremuan, ingurumen-sentsibilizazioan, euskararen sustapenean, kultura-sormenean, kirolaren sustapenean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean, etxebizitzan eta dokumentu honetan eta eranskinean jasotako gainerako ekimen partekatuko eremu eta sektoreetan.

2.- Zuiako Udalaren lerro, laguntza-programa eta dirulaguntza guztietarako normalizatzen jarraitzea horiek guztiak gauzatzeko printzipio eta oinarri komunak.

3.- Dirulaguntzen udal-kudeaketa hobetzea eta arrazionalizatzea, laguntza-lerroen kudeaketan zeharkakotasuna, eraginkortasuna eta efizientzia baloratzuz.

4.- Sinplifikazio administratiboa eta gardentasuna bultzatzea, NISAE aplikazio informatikoa erabiliz (benetako elkarreragingarritasuna ahalbidetuz), eskatzaileek dokumentazioa aurkeztu behar ez izatea lortzeko, eskaera-formularioaz harago.

Diruz lagundu daitezkeen arloetako bakoitzaren helburu estrategikoak eta espezifikoak I. eranskinean zehazten dira.

IV. KAPITULUA. GAUZATZEKO EPEAK

9. ARTIKULUA.

Oro har, udal-dirulaguntzek urtebeteko exekuzio-epaia izango dute, eta justifikazio-ondorioetarako urte naturala izango da hautatu ahal izango den aldia. Inguruabarren arabera urtebete baino gehiagoko epea ezartzea edo aukera daitezkeen aldia aldatzea komeni bada, dagokion deialdian edo ebazpenean jaso beharko da.

V. KAPITULUA. FINANTZAKETA

10. ARTIKULUA.

Plan honetan jasotako dirulaguntzak eraginkorrak izateko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar da dagokion urteko aurrekontuan.

VI. KAPITULUA. DENBORA EREMUA

11. ARTIKULUA.

Dirulaguntzen Plan Estrategiko honen denbora-eremua 2023, 2024 eta 2025. ekitaldietarako proposatzen da.

VII. KAPITULUA. PLANAREN KONTROLA ETA EBALUAZIOA

12. ARTIKULUA.

Dirulaguntzaren onuraduna elkarte edo erakunde baliokide bat denean, honako hauek aurkezteko betebeharra ezarriko da: diruz lagundutako jardueraren memoria, justifikazio-kontua eta/edo aplikatu beharreko oinarri arautzaileen arabera eska daitezkeen beste edozein dokumentazio, emakida-ebazpena edo hitzarmena, bai eta aplikatu beharreko araudia ere.

Dirulaguntzak ematean ezarritako betebeharrak bete direla justifikatzen duten memorietan, sexuaren arabera banakatutako informazioa eman beharko da honako hauei buruz: emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak, erakundearen titularrak eta/edo, hala



badagokio, langileen titularrak, bai eta dirulaguntzaren xede den zerbitzua emateko kontratatu den erakundearen plantilla ere.

Onuraduna pertsona fisikoa denean, justifikazio-kontua eta/edo aplikatu beharreko oinarri arautzaileen, emakida-ebazpenaren edo hitzarmenaren eta aplikatu beharreko araudiaren arabera eska daitekeen bestelako dokumentazioa aurkezteko betebeharra ezarriko da.

Dirulaguntzaren onuradunak diruz lagundutako jardueraren memoria, justifikazio-kontua eta eska daitekeen beste edozein agiri aurkeztu beharra alde batera utzi gabe, hori guztia dirulaguntza arautzen duten oinarriekin, emakida-ebazpenarekin edo hitzarmenarekin eta aplikatu beharreko araudiarekin bat etorriz, dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, dirulaguntzaren arduradunek txosten arrazoitua eskatu ahal izango diete onuradunei, honako hauei buruzkoa: garatutako ekintza-kopurua, dirulaguntzaren xede den herritar-kopurua sexuaren arabera banakatuta, eta lortutako helburuen justifikazioa. Nolanahi ere, aurreko justifikazioa aurkeztu ahal izango da.

Horri dagokionez, Alkatetzaren aginduz, dirulaguntza kudeatzen duen arloak behar den informazioa eskatuko dio onuradunari, dirulaguntza ebaluatzeko, ebaluazio-txostena egin dezan. Txosten horretan, honako hauek zehaztuko dira:

1. Helburua.
2. Erakunde onuraduna eta, hala badagokio, laguntzailea.
3. Diruz lagundutako zenbatekoa.
4. Dirulaguntzaren zenbatekoan garatutako ekintza zehatzak.
5. Diruz lagundutako ekintza lortu duten herritarren kopurua, sexuaren arabera berezita.
6. Dirulaguntza eman duen erakundearen balorazioa, lortu nahi diren helburuetara egokitzeari, dirulaguntza emateko denborari eta dirulaguntza eragin duen programa mantentzearen edo kentzearen egokitasunari dagokienez.

13. ARTIKULUA.

Diruz lagundutako programen finantza-kontrola Kontu-hartzailletza Nagusiari dagokio, eta hark aztertuko ditu, alde batetik, diruz lagundutako zenbatekoak ordaintzeko benetako datak, espediente bakoitzean aurreikusitako datei dagokienez, eta, bestetik, erabilitako ordainbideak eta dirulaguntza lortzeko onuradun bakoitzari eskatutako baldintzen justifikazio zuzena. Kontu-hartzailletzak eskatuko du, dirulaguntzen eremuari lotutako administrazio-espedienteak abian jartzearen ondoriozko egintzak behin betiko izapidetu aurretik, kasu bakoitzean ardura duen arloaren arabera eskumena duen teknikariak oniritzia eman diezaiela egintza horiei.

14. ARTIKULUA.

Dirulaguntzen plan estrategikoa berrikusi egin beharko da,

- Indarrean ez dauden edo helburuak betetzeko eraginkorrak ez diren dirulaguntzen ildoak aldatu edo eguneratzeko.
- Mantentzen diren dirulaguntzen zenbatekoak berregokitzeko.
- Aldez aurretik ezarritako helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren jarduera-ildo berriak sartzeko.

Jarraipen hori urtero egingo dute alkatetzak edo arduratutako udal-gobernuaren arloko zinegotzi delegatuak, bai eta arloetako teknikariek ere. Jarraipen hori memoria batean jasoko da, eta Informazio Batzordeari bidaliko zaio, zehaztaper hauekin:



- Emandako, justifikatutako, uko egindako, itzultitako eta itzultzeko prozesuan dauden dirulaguntzak bilduko dituen lerro eta dirulaguntza mota bakoitzari buruzko informazioa.
- Helburu espezifikoaren betetze-maila.
- Benetako kostuak, aurreikusitakoekiko.
- Eragin nahi izan den errealitatearen gaineko eragina eta ondorioak.
- Emakumeen eta gizonen berdintasun erreala eta eraginkorraren arloan ezarritako betebeharrak betetzearen gaineko eragina eta ondorioak.
- Hurrengo plan estrategikoa egiteko iradokizunak.
- Ondorioak edo balorazio orokorra.

VIII. KAPITULUA. PUBLIZITATEA

15. ARTIKULUA.

Udalak deitutako eta emandako dirulaguntzei buruzko informazio guztiari legez ezarritako publizitatea emango zaio.

I. ERANSKINA

1. LERRO ESTRATEGIKOA – GIZARTE EKINTZA

Helburu estrategikoa: Gizarte-kohesioa, inklusioa, balio kolektiboen garapena eta giza eskubideak sustatzea. Oinarritzko gizarte-zerbitzuak aholkatutako eta orientatutako gizarte-larrialdietarako laguntzak ematea. Eraginpeko kolektiboen bizi-baldintzak hobetuz.

Gauzatzeko epea: Urteko deialdiak.

Finantzaketa-iturria: Udal-aurrekontua.

Programa ekonomikoa	Dirulaguntzaren lerroa	2023ko kostua	Modalitatea	Helburuak
231.480.000	Behar duten familientzako dirulaguntza	4.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Ustekabeko larrialdi-egoeran dauden familiei laguntzea, oinarritzko gizarte-zerbitzuen aholkularitzarekin.
231.480.090	Etxez etxeko arretarako dirulaguntza	6.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Mendekotasun-egoeran edo desgaitasun-graduan dauden pertsonak zaintzeko langileak ohiko bizilekuan kontratatzeak dakartzan gastuak ordaintzen laguntzea.
241.480.000	Langabeentzako prestakuntza	3.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Laneratzeko bokazio argiarekin prestatzen ari diren langabeei laguntzea.



326.481.050	Haurreskoletarako dirulaguntza	3.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Errenta baxuenak dituzten gurasoei lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko aukera ematea.
-------------	--------------------------------	-------	-------------------------------	--

2. LERRO ESTRATEGIKOA - GARAPENERAKO LANKIDETZA

Helburu estrategikoa: Herri behartsueneren garapenean laguntzea, haien bizi-baldintzak hobetzen laguntzen duten ekimenak sustatuz, elkartasuneko eta tokiko garapeneko proiektuetarako laguntza ekonomikoen bidez. Oinarrizko premiak ase nahi dira, hau da, elikadura, edateko ura eta oinarrizko saneamendua, osasuna, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak, eta aldi berean, Zuiako herritarrak sentibilizatu. Era berean, hondamendi naturalek, gatazka belikoez edo horien ondorioez kaltetutako herriei laguntza humanitarioa eta larrialdikoa eman nahi zaie.

Gauzatzeko epea: Urteko deialdiak.

Finantzaketa-iturria: Udal-aurrekontua.

Programa ekonomikoa	Dirulaguntzaren lerroa	2023ko kostua	Modalitatea	Helburuak
231.780.000	Laguntza humanitarioa	20.500	Zuzeneko emakida izenduna, hitzarmenarekin	Herrialde azpigaratuetako oinarrizko azpiegituren garapena bultzatzea, Euskal Fondoaren programen bidez.
231.780.000	Haurren harrera	3.500	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Muturreko kalteberatasun-egoeran dauden herrialdeetako haurren harrera sustatzea, haien bizi-baldintzak, osasun fisikoa eta mentala hobetzeko.

3. LERRO ESTRATEGIKOA - KULTURA, ONDAREA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Helburu estrategikoa: Zuiako udalerriko kultura-ondarearen kultura eta zabalkundeia sustatzea, herritarrek udalerriko kultura- eta gizarte-bizitzan parte har dezaten erraztuz eta auzo-asoziazionismoa bultzatuz. Formatu txikiko kultura-jardueretarako udalerriko establezimenduentzako dirulaguntzari dagokionez, egia bada ere 2020an ez dituela lortu konfinamenduaren eta murrizketa gogorren ondoriozko helburuak, uste dugu plan estrategiko honen iraunaldian lor daitezkeela helburuak, eta, beraz, mantentzea erabaki da, ez baita posible izan benetako diagnostikoa egitea.

Gauzatzeko epea: Urteko deialdia.

Finantzaketa-iturria: Udal-aurrekontua.



Programa ekonomikoa	Dirulaguntzaren lerroa	2023ko kostua	Modalitatea	Helburuak
334.481.000	Kulturaren, gizartearen eta berdintasunaren arloko elkarteentzako dirulaguntza.	29.000	Norgehiagoka	Emakumearen parte-hartzea sustatzen duten kultura- eta gizarte-jarduerak antolatzen laguntzea. Udalak programatutako jarduerak osatu edo ordeztu dituzten erakundeak.
334.480.010	Eugenio Murgia beka	6.000	Norgehiagoka	Zuiako ondare kultural eta historikoarekin lotutako ikerketa-proiektuak sustatzea eta bultzatzea, beka baten bidez.
334.481.020	Udalerriko establezimenduentzako dirulaguntza, formatu txikiko kultura-jardueretarako	4.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Formatu txikiko kultura-jarduera sustatzea eta bultzatzea, saltoki eta ostalaritza-lokaletan edo horietatik hurbil.

4. LERRO ESTRATEGIKOA - KIROLAREN SUSTAPENA

Helburu estrategikoa: herritarren artean kirola sustatzea, bai eta Zuiako udalerriko kirol-ekitaldiak programatzea eta antolatzea ere. Praktika osasungarria sustatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko bitarteko gisa, kirol-diziplina guztietan erreferente diren elkarte, talde, klub eta/edo pertsona fisikoekin lankidetzan. ZUIA TXIRRINDULARI ELKARTEAREN azpitaldea babestea.

Gauzatzeko epea: Urteko deialdia.

Finantzaketa-iturria: Udal-aurrekontua.

Programa ekonomikoa	Dirulaguntzaren lerroa	2023ko kostua	Modalitatea	Helburuak
341.481.000	Kirol-taldeak eta -elkartek	26.000	Norgehiagoka	Zuiako udalerrian kirola sustatzea (kirol amateurrari garrantzia emanez), irabazi-asmorik gabeko elkarten bidez.
341.481.020	La Blanca atletismo-kluba	1.800	Zuzeneko emakida izenduna	Bere diziplinako kirol-ekitaldiak bultzatzea,



				Zuian atletismo-klubik ez dagoelako.
341.481.030	Atzabal Mendi Taldea	2.000	Zuzeneko emakida izenduna	Kirolaren praktika osasungarria sustatzea, bizikaltatea eta udalherriaren ingurunea hobeto ezagutzeko, mendi-ibiliekin, mendizaletasunarekin eta abarrekin lotutako jardueren bidez.
341.481.040	Oroko kofradiarentzako dirulaguntza, Zuiako herrien arteko lasterketarako	1.200	Zuzeneko emakida izenduna	Kirol amateur bultzatzea, Zuiako herrii protagonismoa emanez, haien ordezkarien bidez, bai eta lasterketaren trazaduraren bidez ere. Helmuga Oroko Santutegian dago.
341.481.050	Zuia duatloirako dirulaguntza	3.000	Zuzeneko emakida izenduna	Bere diziplinako kirol-ekitaldiak bultzatzea.
341.481.070	Javier Ruiz de Larrinaga campuseko ziklo-krosari buruzko prestakuntza	2.000	Zuzeneko emakida izenduna	Udalerriko gazteei, azken urteotan, kirol horretan lehiatzeko erreferentia den pertsonak emandako ziklo-krosari buruzko prestakuntza bultzatzea.
341.481.080	23. urtez azpiko txirrindulari-taldea babestea	10.000	Zuzeneko emakida izenduna	Gazteen artean kirola egiten laguntzea, Zuiako udalherria sustatuz, Arabako kategorian horretako talde bakarrari laguntza ekonomikoa emanez eta Zuiako txirrindularitza-eskolarako erreferentia izanik.
341.481.090	Profesionalak ez diren kirolariarentzako edo desgaitasuna duten kirolariarentzako dirulaguntza	5.000	Norgehiagoka	Profesionalak ez diren edo desgaitasuna duten kirolari gazteei laguntza ekonomikoa ematea nazioarteko lehiaketetan parte har dezaten.



5. LERRO ESTRATEGIKOA - HEZKUNTZA

Helburua: guraso-elkartekin lankidetzan aritzea hezkuntza-komunitatearentzat interesgarriak diren proiektuak egiteko, eskola-ikaskuntza indartzeko, udalerrian goi-mailako ikasketarik ez izatearen ondoriozko mugak edo desorekak konpentsatzeko eta horretarako laguntzak emateko. Erakunde, elkarte edo unibertsitateekin lankidetzan aritzea hezkuntza-komunitatearentzat interesgarriak diren proiektuak egiteko.

Gauzatzeko epea: Urteko deialdia.

Finantzaketa-iturria: Udal-aurrekontua.

Programa ekonomikoa	Dirulaguntzaren lerroa	2023ko kostua	Modalitatea	Helburuak
326.481.000	Oroko Andre Mariaren ikastetxeko guraso-elkartea	18.000	Emakida izenduna	Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak sustatzea eta diruz laguntzea, eta ikasleen premia psikopedagogikoak osorik ordaintzea, familien egoera ekonomikoaren mugak edo desorekak konpentsatuz, Oroko Andre Mariaren ikastetxean.
326.481.020	Ikasleak garraiatzeko dirulaguntza	17.500	Izenduna	Hezkuntza arautuko, unibertsitateko, batxilergoko eta lanbide-heziketako ikasketa ofizialetera joateko beharrak eragindako gastu ekonomikoa arintzea, Zuian egiterik ez dagoenean.
326.481.060	Dirulaguntza MURGIAKO DBHko BAIALDE guraso-elkarteari	4.000	Izenduna	Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak sustatzea eta diruz ordaintzea, eta ikasleen premia psikopedagogikoak osorik ordaintzea, familien egoera ekonomikoaren



				mugak edo desorekak konpentsatuz, MURGIA BHIIn.
326.481.070	Kanpoko laguntza eskola-ikaskuntzan	16.000	Zuzeneko emakida	Udalerriko lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetako ikasleen premia psikopedagogiko guztiak diruz laguntzea (ikastetxeko aholkulariak edo orientatzaileak txostena egin ondoren).

6. LERRO ESTRATEGIKOA - EUSKARAREN SUSTAPENA

Helburua: Zuiako eguneroko bizitzako esparru guztietan euskararen ezagutza, ikaskuntza eta erabilera bultzatzen duten ekimenak finantzatzea. Baita HABEK onartutako zentroetan edo Zuiako udalerrian euskara ematen duten ikastegietan matrikulatutako ikasleei dirulaguntzak ematea ere.

Gauzatzeko epea: Urteko deialdia.

Finantzaketa-iturria: Udal-aurrekontua.

Programa ekonomikoa	Dirulaguntzaren lerroa	2023ko kostua	Modalitatea	Helburuak
335.480.000	Euskara sustatzeko eta ikasteko dirulaguntza	10.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	HABEK homologatutako euskara-ikastaroak euskaltegietan edo barnetegietan egin daitezen sustatzea.
335.481.030	AEK GAU ESKOLarentzako dilaguntza	2.800	Zuzeneko emakida izenduna	Zuian euskararen ezagutza emateaz arduratzen diren erakundeen defizit ekonomikoa konpentsatzen laguntzea.

7. LERRO ESTRATEGIKOA - ETXEBIZITZA

Helburuak: nolabaiteko antzinatasuna duten eraikinen mantentzea eta kontserbazioa sustatzea, alokairua eta etxebizitzaren berreskurapena sustatzea, bizilagunek udalerrian jarrai dezaten lagunduz eta gazteen emantzipazioa ahalbidetuz.

Gauzatzeko epea: Urteko deialdia.

Finantzaketa-iturria: Udal-aurrekontua.



Programa ekonomikoa	Dirulaguntzaren lerroa	2023ko kostua	Modalitatea	Helburuak
1521.481.080	Etxebizitza alokatzeko laguntzak	25.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Zuiako udalerrian etxebizitza baten alokairu-erregimenerako sarbidea erraztea, Zuiako pertsonen sustraitzea bultzatzeko.
1522.481.000	Eraikinen Ikuskapen Teknikorako (EIT) dirulaguntza	1.500	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Bizilagunei laguntzea 241/2012 Dekretuaren arabera eraikinen ikuskapena betetzearen ondoriozko kostua ordaintzen.
1522.780.000	Baserriak eta etxebizitzak berreskuratzeko planerako dirulaguntza.	40.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Zuiako udalerriko etxebizitza hutsak birgaitzea, ohiko etxebizitza bihurtzeko.

8. LERRO ESTRATEGIKOA - KONTZEJUAK

Helburuak: Kontzejuekin lankidetzan aritzea zerbitzu publikoetara bideratutako ekipamendu-eta azpiegitura-obrei dagokien gastuaren finantzaketan, eta zerbitzu horiek mantentzen laguntzea, berdintasuna bultzatzeko herrietako zerbitzuen prestazioan eta kalitatean, herritar guztien gizarte-ongizatea eta oreka lortze aldera.

Gauzatzeko epea: Urteko deialdia, obretan izan ezik.

Finantzaketa-iturria: Udal-aurrekontua.

Programa ekonomikoa	Dirulaguntzaren lerroa	2023ko kostua	Modalitatea	Helburuak
134.434.000	Elurra kentzeko dirulaguntza	10.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Elurra kentzeak dakartzan aparteko gastuetan laguntzea, udalerriko herrietan bizi diren pertsonen joan-etorriak errazteko oso beharrezkoa baita.
165.434.000	Argiteria publikorako dirulaguntza	90.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Administrazio Batzarretako elektrizitate-kontsumoaren gastuen % 95ean laguntzea.



165.434.010	Administrazio Batzarretako argiteria publikoaren defiziterako aparteko dirulaguntza	43.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Laguntza ekonomikoa ematea aurreko ekitaldian argiteria publikoaren prezioen igoeraren eragina jasan duten Administrazio Batzarrei.
338.434.000	Administrazio Batzarretako jaietarako dirulaguntza	40.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Kontzejuen kultura- eta jai-jarduerak sustatzea eta haien gastuetan laguntzea, auzo-harremanak, kolektibitate-zentzua eta emakumeen eta gizonen berdintasunezko parte-hartzea sustatuz eta genero-rol tradizionalak hautsiz.
943.734.000	Administrazio Batzarretako obretarako dirulaguntza	200.000	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Udalerriko toki-erakundeekin lankidetzan aritzea, ekipamendu eta azpiegituretarako higiezinak hornitzeko, hobetzeko, berritzeko eta mantentzeko laguntza ekonomikoa emanez.
943.734.010	Kontzejuen ondarearen inbentariorako dirulaguntza	3.500	Lehiarik gabeko konkurrentzia	Zuiako kontzejuen ondare-inbentarioaren eguneratzea sustatzea.

9. LERRO ESTRATEGIKOA - OROKO SANTUTEGIA

Helburuak: Oroko Santutegia Zuiako haraneko kultu-eraiakin gisa mantentzen eta kofradiaren eguneko jaia ospatzen laguntzea.

Gauzatzeko epea: Urteko deialdia.

Finantzaketa-iturria: Udal-aurrekontua.



Programa ekonomikoa	Dirulaguntzaren lerroa	2023ko kostua	Modalitatea	Helburuak
336.481.000	Oroko Santutegiko Zuzendaritza Batzordea – Mantentze-gastuak	6.000	Emakida izenduna	Oroko Santutegiaren eta inguruaren mantentze-gastuetan laguntzea.
336.781.000	Oroko Santutegiko Zuzendaritza Batzordea – Hobekuntza-lanak	15.000	Emakida izenduna	Oroko Santutegia eta ingurunea mantentzen laguntzea.

10. LERRO ESTRATEGIKOA - LARRIALDI EGOEREN ERAGINARI AURRE EGITEKO LAGUNTZAK

Helburuak: Udalerriko herritarrei kalte sozialak, ekonomikoak edo bestelakoak eragingo dizkien ustekabeko etorkizuneko larrialdi-egoera batek ekar dezakeen inpaktua arintzea.

Gauzatzeko epea: Urteko deialdia, hurrengo urteetan berrikusi beharrekoa.

Finantzaketa-iturria: diruzaintzako gerakina.

Programa ekonomikoa	Dirulaguntzaren lerroa	2023ko kostua	Modalitatea	Helburuak
Zehazteke	Zehazteke	0	Zehazteke	Zehazteke